

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN
BILERAREN AKTA
(29.03.11)**

JOSEBA ARREGI jn, Hirigintza Zinegotzia

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jauna

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA andrea

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jauna (Ingurune)

BERTARATU DIRA:
PATXI DIAZ jauna (Ingurumen eta Ibilbide Ekologikoetan izen handiko pertsona).
CARLOS ARANA jauna (Fegevol).
TXEMA GOROSTIAGA jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona eta EHuko irakaslea).
PEDRO BARRENETXEA jauna (Eskolako Agenda 21 eta Aixerrota Institutuko irakaslea).
D. DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkartek).
SANTI BARRADO Jauna (Bizkel).
AMELIA ZORRILLA Andrea (Basozaleak)
EDUARDO FIDALDO Jauna (Basozaleak)
XABIER BUENETXEA Jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona).
D. TOMI ETXEANDÍA (Eskola Agenda 21 eta Ikastolako irakaslea).

JON GALLASTEGI Jauna (Fadurako Institutuko irakaslea eta Eskola Agenda 21eko kidea. Foruko kidea ez bada ere, gonbidatua izan da.

Ingurumen Saileko zinegotzia den Keltse Figuren andreak esan zuen bileran ez zela izango arratsalde horretan Udalsarea 21en bilerara joan behar zuelako, Gasteizen. Era berean, Eskuz-eskuko Sussy Asteinzak aurrez abisua eman zuen beharbada berandu iritsiko zela bilerara, eta, azkenean, ez zen joan.

Getxon, 2011ko martxoaren 29an. Egun horretako zazpitan, Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foruak bilera egin zuen, eta aurrean aipatutakoak bildu ziren.

GAI-ZERRENDA

“Getxoko Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumena berreskuratzearen inguruko proiektuaren barruan, berriz landatzeari buruzko informazioa” eman zuen Jose Luis Landa jaunak, Uraren Euskal Agentziako (URA) ordezkariak.

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE
MEDIO AMBIENTE
(29.03.11)**

CONCEJAL DE URBANISMO
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA:
D^a. ARANTZA CABEZA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:
D. PATXI DIAZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios Ecológicos).
D. CARLOS ARANA (Fegevol).
D. TXEMA GOROSTIAGA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente y profesor de la UPV)
D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).
D. SANTI BARRADO (Asociación Bizkel).
D^a AMELIA ZORRILLA y EDUARDO FIDALGO (Asociación Basozaleak).
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).
D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola).
D. Jon Gallastegi (Profesor del Instituto de Fadura y miembro de la Agenda Escolar 21. Aunque no es miembro del Foro se le ha invitado).

La concejala de Medio Ambiente, Doña. Keltse Eiguren excusó su no asistencia ya que tenía que asistir a una reunión de Udalsarea 21 en Vitoria-Gasteiz esa misma tarde. Asimismo, Sussy Asteinza de Eskuz-esku avisó previamente que tal vez llegaría tarde a la reunión; finalmente, no acudió.

En Getxo, a 29 de marzo de 2011. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

ORDEN DEL DÍA

El único tema que se trató en la reunión fue “Información relativa a la revegetación, en el proyecto de acondicionamiento hidráulico y recuperación ambiental del río Gobela en Getxo”, a cargo de D. José Luis Landa, representante de la Agencia Vasca del Agua (URA).

URAKo ordezkariak hasteko esan zuen “Getxoko Gobela ibaiaren egokitze hidraulikorako eta ingurumena berreskuratzeko proiektuarekin” egungo ubidea hobetu nahi dela, gertatzen diren uholdeak saihestu eta ingurumen aldetik hobetze aldera. Ildo horretan, Jose Luis Landa jaunak diapositiba batzuen bidez erakutsiko du, obrez gain, ingurumena berreskuratzeko jarduerak egiten dituztela. Halaber, Getxon nahiz beste udalerrri batzuetan landare inbaditzaileak errotik ateratzeko burututako jarduerak erakutsiko ditu, tartean poligonaceae familiako *Fallopia japonica*, Asiako ekialdekoa, gobernuaren helburuetarako landatua izan dena. Kolore berdexka-horixka du, orri ugari ditu eta, *banbuaren* antzekoa da.

El representante de URA comienza la exposición diciendo que el “Proyecto de Acondicionamiento Hidráulico y Recuperación Ambiental del río Gobela en Getxo” consiste en la mejora del cauce actual para evitar las inundaciones que se vienen produciendo y mejorar su integración medioambiental. En este sentido, D. José Luis Landa pone una serie de diapositivas que reflejan que no sólo hacen obras, sino también actuaciones de recuperación ambiental. También ilustra actuaciones que han llevado a cabo en Getxo, así como en otros municipios de cara a extirpar plantas invasoras, entre ellas *Fallopia japonica*, de la familia poligonaceae, que es originaria del este asiático y ha sido cultivada con fines gubernamentales. Se reconoce por el color verdoso-amarillento, por la exuberancia de sus hojas y por su parecido al *bambú*.

Landare belarkara da, iraunkorra, zurtoin birakari eta hutsekin, eta hiru metro neurtzera iritsi daiteke.

Es una planta herbácea perenne anual, con tallos volubles y huecos, y que puede medir hasta tres metros de altura.

Landareak ondorengo arazoak sor ditzake:

- Kalteak zolatutako zonetan eta uholdeetatik defendatzeko egindako egituran.
- Biodibertsitatea murrizten du, bertako landarediarekin lehiatzeagatik.
- Uholdeak izateko arriskua gehitzen du, ubideak ixteagatik.
- Ibaiertzek higadura eta ezegonkortasuna izateko arriskua gehitzen du.
- Ibaiertzen paisaia-balorea gutxitzen du.

Los problemas que puede causar son los siguientes:

- Daños en zonas pavimentadas, y en la estructura de la defensa de inundaciones.
- Reduce la biodiversidad por competencia con la vegetación autóctona.
- Incrementa el riesgo de inundación por obstrucción de los cauces.
- Incrementa el riesgo de erosión e inestabilidad de las riberas.
- Disminuye el valor paisajístico de las riberas.

Halaber, Jose Luis Landa jaunak azaldu du ibaiertzean zuhaitz ezberdinak landatu dituztela eta batez ere haltza erabili dutela itzala ematen duelako eta ibaien oxigenoa hobetzeko ona delako. Ildo horretan, Txema Gorostiaga jaunak adierazi du halten aldekoa dela, eta Xabier Buenetxea jaunak galdetu dio hazia bertakoa al den. Jose Luis Landa jaunak erantzun dio Arabakoa dela, bereziki.

D. José Luis Landa plantea también como han hecho distintas repoblaciones de ribera, donde se ha utilizado bastante el aliso, que tienen muchas ventajas en cuanto a dar sombra y en este sentido mejorar el oxígeno de los ríos. En este sentido, D. Txema Gorostiaga manifiesta su posición favorable a los alisos, y D. Xabier Buenetxea pregunta si la semilla es autóctona. D. José Luis Landa responde que es de procedencia alavesa, fundamentalmente.

Jarraian, Jose Luis Landa jaunak adierazi du Zubilleta ikastetxearen eta Uribe Kostako zubiaren arteko zonan, “ibai-parkea” sortzea erabaki dutela. Zubilletako urbanizaziora bitarte iristen den egungo ubidea bere horretan utziko da, eta beste ubide nagusi bat sortuko da Uribe Kosta eta ikastetxearen artean. Ubide nagusi horren eta etxeen azpitik igarotzen den ubidearen artean, berriz, ubide osagarria sortuko da, ubideak konektatzeko balioko duena. Horrela, erdiko zona utziko da landareak sartu eta ibai-parkea osatzeko.

A continuación, D. José Luis Landa informa que en la zona entre el colegio Zubilleta y el puente de Uribe Kosta se ha decidido crear un “parque fluvial” en el cual se mantendrá el cauce actual que llega hasta la urbanización de Zubilleta y se creará un cauce principal que transcurrirá entre Uribe Kosta y el colegio; entre este cauce principal y el cauce que pasa por debajo de las casas se creará un cauce auxiliar que serviría de conexión entre los cauces, dejando una zona central para revegetar formando el parque fluvial.

Xabier Buenetxea jaunak gehitu du Bolueko futbol-zelaian ere zerbait egitea bazegoela uholdearen lautada moduan erabiltzeko.

Añade D. Xabier Buenetxea, que se podía haber intervenido en el campo de fútbol de Bolúe, para utilizarlo como llanura de inundación.

Ibai-parkeari dagokionez, galderak egin dituzte. Xabier Buenetxea jaunak azaldu du, makinak oraindik ere lekuan bertan daudenez, 30-40 cm-ko sakonerako hiru bat urmael egin daitezkeela hegabera, ahate eta abarrentzat, merenderoak, e.a. bezalako beste gauza batzuk egin baino lehen. Jose Luis Landa jaunak erantzun dio oraindik ez

En relación con el parque fluvial, se suceden las preguntas. Así, D. Xabier Buenetxea plantea, que en la medida en que todavía están las máquinas en el lugar, se podrían hacer alrededor de 3 charcas de una profundidad de unos 30-40 cm. para avefrías, patos, etc., antes de que se hagan otras cosas, tipo merenderos, etc. D. Jose Luis

dela ezer erabaki, eta hori Udalak aztertu beharko duela. Gainera, ezin dela inprobisatu. Urak egokitze hidraulikorako eta ingurumen aldetik berreskuratzeko neurriak soilik egingo ditu.

Txema Gorostiaga jaunak esan du galdera asko dituela; esate baterako, zer interesa izango luketen hegaztiak horra joateko, normalean Bolueko Hezegunera joaten badira. Beharbada azterketa bat egin beharko da garatu beharreko jardueren inguruan, sakabanatutako jarduerak pentsatu aurretik. Jon Gallategi, Patxi Diaz eta beste hainbat Xabier Buenetxea jaunaren ikuspegiaren alde agertu dira.

Buenetxearen iritziz, proposamenean jarduera erraza jasotzen da, ez erasotzailea, ez itzulezina, eta, hori aukera garrantzitsua izan daiteke biodibertsitatearen alde. Hegazti eta anfibio gehiago erakartzeko aukera eskainiko da, eta barietate eta kopuru aldetik irabaziko da.

Jose Luis Landa jaunak esan du uholde-lautada bat ez dela urmaela, eta horrekin lurzorua erabilerak mugatuko genituzkeela. Buenetxea jaunak erantzun dio zonak aztertu behar direla, zer-nolako erabilerak izateko aukerak dituzten ikusi. Buenetxeak ez du uste proposatutako urmaelak egitearekin, zonako beste erabilera bateragarriak kalte daitezkeenik.

Azkenik, Foruaren hurrengo bilera maiatzaren 3an egitea erabaki dute, aurrean aipatutakoaren harira eta korridore ekologikoaren inguruan, zer-nolako proposamenak egin daitezkeen baloratzearen.

Beraz, hurrengo bilera, 2011ko maiatzaren 3an egingo da, asteartean. Beste aldietan bezala, deialdia astebate lehenago bidaliko da.

Getxon, 21:00etan, bilera amaitutzat eman da.

Landa responde que no se tiene nada decidido, y que eso lo tendrá que estudiar el Ayuntamiento, aunque añade, tampoco se puede improvisar; Ura se va a limitar a realizar las medidas de acondicionamiento hidráulico y recuperación ambiental.

D. Txema Gorostiaga viene a decir que se le plantean varios interrogantes por ejemplo que interés tendrían en llegar ahí las aves cuando su lugar habitual es el Humedal de Bolúe; Opina que quizá conviene hacer un estudio, sobre posibles actuaciones a desarrollar, antes de pensar en actuaciones dispersas. Hay varias intervenciones de Jon Gallategi, Patxi Diaz, etc., a favor del planteamiento de D. Xabier Buenetxea.

Buenetxea considera que la propuesta consiste en una actuación fácil y no agresiva, no irreversible y que con ella, se puede ganar una baza importante a la biodiversidad, atrayendo a una población de aves y anfibios mayor, ganando en variedad y cantidad.

D. Jose Luis Landa plantea que una llanura de inundación no es una charca, y que con esa actuación estaríamos limitando los usos del suelo; a lo que el Sr. Buenetxea argumenta que hay que ver las zonas, con posibilidades se usos variados; no cree que la realización de las charcas propuestas, pueda afectar otro tipo de usos compatibles en esa zona.

Por último, se decide celebrar la reunión del Foro, el próximo 3 de mayo, para valorar las propuestas que se pueden hacer, en la línea de lo apuntado anteriormente, así como del corredor ecológico.

La próxima reunión, por tanto, tendrá lugar el martes, día 3 de mayo de 2011. Se enviará una semana antes como en otras ocasiones la convocatoria.

En Getxo, a las 21:00 horas se da por finalizada la reunión.